



Bi aukeretatik bat hartu behar duzu.

A AUKERA

1. Deskribatu, idatziz, aurkezten den kartelaren irakurketa konnotatiboa eta denotatiboa.

OHARRA: Aurkezten den testua zuen iruzkina bideratzeko da.

Hiru alderdi hartuko ditugu kontuan:

a) Irakurketa objektiboa. Denotatiboa.- 4 puntu

Kartela osatzen duten elementu guztien azaleko deskribapena egin, ondoko proposamenaren arabera analizatuz eta kokatuz:

Marraz ezazu konposizio-eskema bat, honakoak adieraziz: ikusizko ibilbideak, arreta zentroa eta indar-lerroak. Azaldu ikusten diren formak: alde bakoitzean nagusitzen diren kolore gamak, eta kontrasterik dagoen ala ez. Aztertu erabiltzen den argi mota. Azaldu hautaturiko plano-mota eta angeluazioa.

b) Irakurketa subjektiboa. Konnotatiboa.- 3 puntu

Kartelaren egileak elementu jakin batzuk erabiltzeko izan duen asmoa aztertzen saiatu. Ezkutuko mezuak aztertu: status soziala, sexua, behar berriak sortzea, konparazioak, e.a./ Zer asmo du? Konbentzitzea, iritzia sortzea, informazioa ematea, e.a. / Zer balioesten du? Sentimenduak, jarrerak, ideiak, joerak / Nori zuzendua dago? Zergatik? / Iradokizun maila: atsegina da, bortxazkoa, erakargarria, lasaigarria, e.a. Pertzepzioa manipulatzeko elementuren bat erabiltzen al du? Zer sentimendu konnotatzen du irudi honek? Erabiltzen dituen formek, manipulatzeko intentzio psikologikoren bat al dute? Zergatik erabiltzen ditu kolore jakin batzuk? Zergatik erabiltzen ditu enkoadraketa edo angeluazio jakin batzuk? Zer asmo du oro har?

c) Kartelaren kritika.- 1 puntu

Egin kartelaren kritika labur bat, kartela ikustean sorrarazi dizun sentimendua edo inpresioa agertuz.

2.- Zer dira zure ustez PUNTUAZIO ZEINUA? 2 puntu

B AUKERA

1.- Garatu idatziz Animazio-zinemari buruz dakizuna: aitzindariak, teknika eta prozedura ohikoenak, filmazio prozesua eta errealizazioa. 4 puntu

2.- Ondoko testua aintzat hartuz, marraztu "story board" bat, sartzen diren angeluen eta planoen oharrak jarrita. 6 puntu

Merlin Aztia

Arturok gertatutakoa azaldu zion. Kay-k "Excalibur" izena ikusi zuen ezpatan eta aitari jakinarazi zion. Aitak Arturori ezpata bere lekuan uzteko agindu zion. Noble guztiak saiatu ziren berriz ateratzen, baina inork ez zuen lortu. Orduan, Arturok ezpatari heldu zion, heldulekutik. Argi izpi zuri bat jaitsi zen berriz bere buru gainean eta Arturok ezpata atera zuen inolako ahaleginik egin gabe.

